

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

Garapenerako Lankidetzaren

Garapenerako lankidetzarako proiektuetarako 2024ko dirulaguntzak emateko deialdiko "Proiektu txikiak" (PT) atala ebatzea

Iragarki honen bidez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urriaren 11n hartutako erabakia jakinarazten zaie interesdunei. Erabaki horren bidez, garapenerako lankidetzaren proiektuetarako 2024ko dirulaguntzen deialdiaren "Proiektu Txikiak" (PT) atala ebatzi zen.

Txosten hau eman du Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak 2024ko irailaren 24an:

2024ko martxoaren 15ean onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024an garapenerako lankidetzarako proiektuetarako dirulaguntzak emateko deialdia, bost ataletan banatuta. PT atala honela dago definituta:

d. PT (proiektu txikiak) atala: gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren proiektu txikiak. Zuzkidura ekonomikoa: 90.000,00 euro.

Oinarrietan laguntzak norgehiagoka bidez emateko prozedura zehazten zuten.

Txosten honen xedea PT atalerako ebazpen-proposamena azaltzea da.

Aurkeztutako eskabideak.

2024ko ekainaren 10ean bukatu zen eskabideak aurkezteko epea. Sei proposamen aurkeztu ziren, garaiz eta behar bezala, ondorengo taulan jasota daudenak (guztira, 89.987,60 euro):

ERAKUNDE ESKATZAILEA	IFK	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	ESKATUTAKOA (EUROTAN)
Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna (ASVE)	G01387141	"CAMBIANDO VIDAS, CAMBIANDO MENTES" Berdintasunezko eraldaketa Ibarako gizonezkoen espetxean	Ekuador	20.000,00
Télimélé - Euskadi elkarte	G42870600	Osasun-zentroa birgaitzea, Bowiko biztanleek osasun-arreta hobe jaso dezaten	Guinea Conakry	10.000,00
PRESTATURIK Euskadiko atzeritar profesionalen elkarte	G01354403	Panela dibertsifikatzeko fabrika hobetzeko, egoera zaugarrian dauden landa-ingurune emakumeentzako azoka baterako postuak eraikitzea, genero-pobreziaren aurka borrokatzeko	Kolonia	10.000,00
Mano sobre el Corazón	G106236643	Elkarrekin Aurrera: Tresna digitalei buruzko prestakuntza eta ekipamendua Kamerungo Cité des Palmiers barrutian	Kamerun	10.000,00
Sunu Gaal	G95976072	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	19.997,60
Asociación por los Derechos de los Pueblos - Bachué Elkarte	G01346345	Erabilera anitzeko eraikina eraikitzea	Kolonia	19.990,00
ESKATUTAKOA, GUZTIRA				89987,60

Deialdiko betebeharrak betetzea.

Garapenerako Lankidetzarako Zerbitzuak berrikusi eta ebaluatu zituen PT ataleko 6 proposamenak, eta 2024ko irailaren 24an egin zuen ebazpen-proposamena barne hartzen duen txosten teknikoa.

Egiaztatu da sei eskabideetatik bostek deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

Asociación por los Derechos de los Pueblos - Bachué Elkarteak aurkeztutako eskaera baztertu egin da, deialdiaren 5.4 oinarrian aurreikusitako betekizuna aplikatu delako. Izan ere, atal honetarako eskatzen da deialdi horren 1. eranskinean zehaztutako presentzia eta jarduna izateko baldintzetako lau betetzen direla dokumentatzea. Ez denez aurkeztu presentzia eta jarduna izateko lau baldintza betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa, baztertu egin da eskaera hori.

Gainerako eskabideei dagokienez, horietako bakoitzeko fitxa bat egin da; bertan zehatz-mehatz baloratzen da proposamen bakoitza, 7. eranskinean jasotako baremazioaren arabera. Deialdiaren PT ataleko proiektu txikiak baremazio-taula.

Proposamenen balioespena.

Puntuazio hauek lortu dituzte proiektuek:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	IFK	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	PUNTAUZIOA (%)
Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna (ASVE)	G01387141	"CAMBIANDO VIDAS, CAMBIANDO MENTES" Berdintasunezko eraldaketa lbarrako gizonezkoen espetxean	Ekuador	50
Télimélé - Euskadi elkarte	G42870600	Osasun-zentroa birgaitzea, Bowiko biztanleek osasun-arreta hobe jaso dezaten	Ginea-Conakry	53,55
PRESTATURIK Euskadiko atzerritar profesionalen elkarte	G01354403	Panela dibertsifikatzeko planta hobetzea, landa-emakume kalteberentzako azoka txiki baterako postuak eraikiz, genero-pobreziaen aurka borrokatzeko	Kolonbia	50
Mano sobre el Corazón	G106236643	Elkarrekin Aurrera: Tresna digitalei buruzko prestakuntza eta ekipamendua Kamerungo Cité des Palmiers barrutian	Kamerun	52,5
Sunu Gaal	G95976072	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	60,9

Deialdiak bi irizpide zehazten ditu dirulaguntzak emateko eta proiektuak baloratzeko, baita eman beharreko dirulaguntzak zehazteko ere:

Baldin eta proiektu batek guztira lortutako puntuazioa ehuneko 50etik beherakoa bada, ez du dirulaguntzarik jasoko (12.11 oinarria).

Emango den dirulaguntza zehazteko, deialdiaren arabera pertinente ez diren partida edo kontzeptuak kenduko dira eskatutako zenbatekotik, ezegokiak edo gehiegizkoak direlako, edo behar bezala justifikatuta ez daudelako (12.12 oinarria).

Proposamen guztiek ehuneko 50eko edo hortik gorako puntuazioa lortu dute.

Beraz, 5 proposamenak zenbatetsi dira, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta.

Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna eta Prestaturik Euskadiko atzerritar profesionalen elkartearen eskabideei dagokienez, aurkeztutako aurrekontuak doitu dira, aipatutako irizpideen arabera.

Dagozkien doikuntzak egin ondoren, dirulaguntzen proposamena garapenerako lankidetzarako proiektuetarako 2024ko dirulaguntzak emateko deialdiaren kontura, lehentasun-hurrenkeran, honako hau da:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	IFK	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	PUNTAUZIOA (%)
Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna (ASVE)	G01387141	"CAMBIANDO VIDAS, CAMBIANDO MENTES" Berdintasunezko eraldaketa lbarrako gizonezkoen espetxean	Ekuador	12.806,11
Télimélé - Euskadi elkarte	G42870600	Osasun-zentroa birgaitzea, Bowiko biztanleek osasun-arreta hobe jaso dezaten	Ginea-Conakry	10.000,00
PRESTATURIK Euskadiko atzerritar profesionalen elkarte	G01354403	Panela dibertsifikatzeko fabrika hobetzeko, egoera zaugarrian dauden landa-ingurune emakumeentzako azoka baterako postuak eraikitzea, genero-pobreziaen aurka borrokatzeko	Kolonbia	7.410,33
Mano sobre el Corazón	G106236643	Elkarrekin Aurrera: Tresna digitalei buruzko prestakuntza eta ekipamendua Kamerungo Cité des Palmiers barrutian	Kamerun	10.000,00
Sunu Gaal	G95976072	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	19.997,60
EMANDAKOAK, GUZTIRA				60.214,04

Erabilgarri dagoen soberakina kalkulatzea.

Balioetsitako bost proposamenek 60.214,04 euro jasoko dituzte guztira.

Deialdiaren zuzkidura diruz lagundu beharreko zenbatekoa baino 29.785,96 euro handiagoa denez, zenbateko hori deialdiko PT ataleko soberakina izango litzateke.

Deialdiaren 4.2. oinarriaren arabera, baldin eta atalen bateko diru-kopurua agortzen ez bada, gainerako ataletako eskabideei erantzuteko baliatu ahal izango da esleitu gabeko kopurua, oinarri hauetan finkatzen diren betebeharrak betetzen eta puntuazioak lortzen direlarik.

Gainera, deialdiaren 17. oinarriaren arabera, deialdi osoa ebatzen delarik erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberakina 2450 2391 4 8200 "Lankidetzarako dirulaguntzak" partidaren kontura egitekoa den beste deialdi bati edo Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren aurrekontuko beste partida bati esleitzeko izapideak egingo ahal izango dira Larrialdietarako Arabako Funtsari lehentasuna emanaz (2450 2391 48205 partida), aurrekontu-aldaketa egiteko dosierraren bitartez.

Horregatik guztiagatik, hauxe proposatzen du Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak:

1. 2024an garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak emateko deialdiaren PT ataleko bost proposamenak diruz laguntzea, zenbateko hauekin:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	EMANDAKOA (€)
Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna (ASVE)	"CAMBIANDO VIDAS, CAMBIANDO MENTES" Berdintasunezko eraldaketa lbarrako gizonezkoen espetxean	Ekuador	12.806,11
Télimélé - Euskadi elkarte	Osasun-zentroa birgaitzea, Bowiko biztanleek osasun-arreta hobea jaso dezaten	Ginea-Conakry	10.000,00
PRESTATURIK Euskadiko atzeritar profesionalen elkarte	Panela dibertsifikatzeko fabrika hobetzeko, egoera zaugarrian dauden landa-ingurune emakumeentzako azoka baterako postuak eraikitzea, genero-pobrezia aurka borrokatzeko	Kolonbia	7.410,33
Mano sobre el Corazón	Elkarrekin Aurrera: Tresna digitalei buruzko prestakuntza eta ekipamendua Kamerungo Cité des Palmiers barrutian	Kamerun	10.000,00
Sunu Gaal	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	19.997,60
EMANDAKOA, GUZTIRA			60.214,04

2. Honako proposamen hau baztertua, deialdian sartzeko baldintzak ez betetzeagatik:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	HERRIALDEA	SARTZEKO BALDINTZA
Asociación por los Derechos de los Pueblos - Bachué Elkarte	Erabilera anitzeko eraikina eraikitzea	Kolonbia	Ez du egiaztatzen

3. Ebazpen honen ondorioz, PT atalari esleitzea erabilgarri dagoen 29.785,96 euroko zenbatekoa, honako hauen kontura:

– 10.000 euro 2024ko garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak emateko deialdiko DH ataleko zuzkidurarentzat.

– 19.785,96 euro Larrialdietarako Arabako Funtsaren zuzkidurarentzat.

4. Aipatutako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agintzea, hala agintzen baitu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikulua, bertan datu hauek adierazita: onuradunak, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 13. artikuluan eskatutako gainerako informazioa. ALHAOn, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan eta udal webgunean ere www.vitoria-gasteiz.org argitaratu beharko dira.

Erabaki honen kontra errekurtsio hauek aurkez daitezke:

Berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean jakinarazte-egunaren biharamunetik kontatuta, hartu duen organo berari zuzendua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik. Errekurtsio horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsio ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Vitoria- Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete, nahi bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 24an

Garapen Lankidetzarako administrazio orokorreko teknikaria
MERTXE BAREA DURÁN